

Irakurzaletasuna sustatzeko kanpaina hasi du Topaguneak

'IRAKURRI, GOZATU ETA OPARITU' EGITASMOAK EKARPENA EGIN NAHI DIO EUSKAL LIBURUGINTZARI

Euskara Elkarteek Federazioak hizkuntza honetan irakurtzearen "alde atsegina" azpimarratu nahi du

ARKAITZ A. MURO

IRUÑEA. Euskarazko liburuaren irakurzaletasuna bultzatzeko helburuarekin, Euskara Elkarteek Federazioa den Topaguneak *Irakurri, Gozatu eta Oparitu* egitasmoaren hirugarren kanpainari hasiera eman dio. Aste honetatik hasi eta datorren uztaile arte iraunen duen jardueran, Nafarroako lau euskara taldek parte hartuko dute lekuko udal liburutegi eta liburu dendekin batera, hala nola Altsasuko Kima, Atarrabiako Karrikaluze, Irurtzongo Aizpea eta Lizarrako Garean elkarteak. Euskal Herri mailan 21 taldek egin dute bat ekitaldiarekin.

Egitasmoaren antolatzaileek adierazten dutenez, "euskaraz irakurtzearen alde atsegina azpimarratu nahi du Topaguneak: hizkuntzaren erabilera gozagarria sustatu, irakurtzeak eta oparitzeak dakarten gozamenaren bidez".

Aurtengoan hirugarren urtea ospatzen du jarduerak. Urtetik urtera Euskara talde berriak gehituz joan dira, baina askok lehenengo egunetik egin zuten elkarrekin euskal literaturaren aldeko bidea, horien artean Irurtzongo Aizpea Elkarteak izan zen. Bertako kidea den Mikel Goladarzenak adierazten duenez, urtean zehar zoritsarrez ez dago joera handia euskarazko liburuak irakurtzeko eta joera hori aldatzeko asmoz, Nazioarteko Liburuaren egunaren harira, ekintza honetan parte hartzera animatu ziren.

Atarrabiako Karrikaluze Elkarteak, ordea, urte honetan bigarren kanpaina egingen du. Iazko edizioan izandako erantzun onaren zaporea ahoan izanda, aurten ere errepikatuko dutela azaltzen du elkarteak kidea den Saioa Martinez de Lizarrondok.

IRAKURRIZ GOZATU

Topaguneak antolatutako jarduera honek hiru pausu ditu. Lehenengoan, herriko udal liburutegian euskarazko liburu bat hautatu beharko da 100 sarrera dituen zerrenda batetik. Zein irakurriko den erabaki ostean, maileguan hartu beharko du partaideak etxean irakurri ahal izateko.

Bigarrena, liburuak irakurri ostean, hautatutako lanaren inguruan fitxa bat betetzea izango da. Irakurleak bere iritzia emateko aukera izanen du, liburutegian erantzun beharko dituen galderen bidez.

Azken pausua oparitzea izanen da. Liburutean galderak erantzun ostean jasotako txartelarekin %25eko beherapena izanen dute irakurleek parte hartzen duten herriko liburu dendetan euskarazko liburu bat erosterakoan. Gainera, Euskara Elkarteak bazkidea izanda, %50eko deskontua izanen dute.